

**Jostailu ez sexistak identifikatu ahal izateko ondorengo galderak gure buruei egitea komeni da: Galdera horiek jolas hobeto ezagutzen lagunduko digu, hala nola, arreta eskaini beharreko alorrak identifikatzen.**

**A la hora de identificar juegos y juguetes no sexistas es conveniente hacerse las siguientes preguntas, que nos ayudarán a conocer mejor el juego y de esta forma a identificar a lo que debemos prestar atención.**

**Aproposa da haurren adinerako?** ¿Es apropiado para la edad de la niña o niño?

**Zein gaitasun landuko ditu jolasaren bitartez?** ¿Que capacidades va a trabajar mediante el juego?

**Zergatik eskatu du jostailu hori? Modagatik, iragarkiagatik...**

¿Por que ha pedido ese juguete? Moda, anuncios...

**Zein nolako iragarkia du? Estereotipo sexistarik gabeko iragarkia al da?**

¿Que tipo de anuncio es? ¿Es un anuncio que no reproduce estereotipos sexistas?

**Norekin jolas daiteke jostailu horrekin? Neskekin? Mutilekin? Biekin?**

¿Con quien se puede jugar con ese juguete? ¿Chicas? ¿Chicos? ¿Indiferente?

**Era kooperatiboan jolastu ahalko da? Gainerako haurren berezitasunak errespetatuko ditu?**

Se podrá jugar de una forma cooperativa? ¿Respeto la diversidad de otras niñas o niños?

**Erabilera anitzeko jostailua da?** ¿Es un juguete de uso diverso?

**Zein rol garatzen dira jolasaren bitartez?** ¿Que roles se desarrollan mediante ese juego?

**Zein eratan balioesten dira rol horiek? Era positiboan? Negatiboan?**

¿De qué manera se valoran esos roles? ¿De una manera positiva? ¿Negativa?

**Zein irudikapen sinbolikoa dute figura femeninoek eta maskulinoek?**

¿Qué representación simbólica tienen las figuras femeninas y masculinas?

**Lagunduko dio haurrari estereotipo sexistak ez errepikatzen?**

¿Ayudará a la niña o niño a no reproducir estereotipos sexistas?

**Zein nolako harreman ereduak bultzatzen ditu? Parekideak? Botere harremanik al da?**

¿Qué tipo de relaciones impulsa? ¿Paritarias? ¿Hay relaciones de poder?

**Edertasunaren edo maitasun ereduaren mitoak bultzatzen ditu?**

¿Reproducen mitos de belleza o amor romántico?

**Derrigorrezko amatasuna bultzatzen du?** ¿Impulsan la maternidad obligatoria?

**Indarkeriazko jarrerak bideratzen ditu?** ¿Impulsan actitudes violentas?

**Harreman heterosexualak bultzatzen ditu? Bestelako harreman eredurik al dago?**

¿Impulsan relaciones heterosexuales? ¿Hay otro tipo de relaciones?

## Jolas eta jostailu ez sexistak

«Jolasa ikasteko egoera naturala da, eta jostailuak jolasa aberasteko baliabideak dira»

«ONDO PENTSATU EROSI AURRETIK»



GORBEIALDEKO KUADRILLAKO  
BERDINTASUN ZERBITZUA  
SERVICIO DE IGUALDAD  
DE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA



BIZKAIA K. A. O.

**urtxintxa**

eskola

**Jolas eta jostailuak  
aukeratzeko irizpide  
eta gomendioak**

Recomendaciones para  
elegir juegos y juguetes

ZIRRIBORROA

GORBEIALDEKO KUADRILLAKO BERDINTASUN ZERBITZUA • SERVICIO DE IGUALDAD DE LA CUADRILLA DE GORBEIALDEA



ARRATZUA-UBARRUNDIA



LEGUTIO



URKABUSTAI



ZIGOITIA



ZUIA



## Jolas eta jostailuak aukeratzeko irizpide eta gomendioak

### Neskek zein mutilak jolastu ahal izatea

Genero zehatzekin identifikatzen diren jolasak alboratu. Neskek zein mutilak jolasean erosoki aritzeko aukera izatea garrantzitsua da, bazterketa saihesteko. Horrela, neska eta mutilen arteko harremanak sendotuko dira, genero sozializazio ezberdindua maila batean baztertuz.

### Estereotipo sexisten transmisioa saihestu

Gure jendarteko eredu sexistak jolasaren bitartez errepikatzea ekidin behar da, haurrek rol horiek barnerraten dituztelako. Gainera, etorkizunera begira ikasketa horiek funtsezkoak dira, horren arabera joka dezaketelako. Esate baterako, jolas sinbolikoan aritzean, rol horiek errepikatzeo aukera ugari daude.

### Gainerako hurrekin jolasteko aukera ematea, berdinaren arteko harremanak indartuz

Jolasa partekatzeak ikasketa prozesua erraztu eta osa dezake, taldean aritzeak dakartzan aberastasun guztiak.

### Haurren arteko komunikazioa ahalbidetzea

Taldean aritzearekin batera, haurren arteko komunikazioa indartzen da, eta adierazteko zein negoziatzeko gaitasunak garatzen lagunduko die, etorkizunean ondorioak izanango dituenak.

### Harreman parekideak bultzatzea, ez etsaitasuneko zein lehiakortasuna

Jolasean harremanak berdinaren artekoak izan behar dute: jolasean hartzen dituzten rolak parekideak izan eta lidergo jarrerak saihestu. Gehiegizko lehiakortasuna eta etsaitasuna oztopa ditzakete haurren arteko erlazioak.

### Baztertzailea ez izatea: edozein haurrek jolas ahal izatea, ez soilik gaitasun bereziak dituztenak

Jolasa baztertzailea izatea saihestu behar da, taldekide-tza indartzea nahi badugu, ahalik eta intrusiboena izan behar du; beraz, gertuko haurren gaitasunei ere erreparratu beharko diegu.

### Gehiegizko lehia eta indarkeria ekidin

Jarrera bortitzak sustatzen dituzten jolasak ezeztatu behar dira, horiek indarkeriazko jokabideak bultzatzen dituztelako. Adibidez: pistolak, tankeak, armak...

### Harreman kooperatiboak indartzea, hau da, helburua partekatua lortzea haurren artean

Haurren arteko lankidetzaren sendotzea komeni da harremanetarako abileziak garatzeko, baita botere harremanak ekiditeko (lidergo jarrerak) eta taldean aritzeko gaitasunak.

### Dibertigarria eta motibagarria izatea: jolasteko gogoak piztea

Gozamena eta dibertsioa badira jolasaren xede nagusietako bat, jolasa erakargarria izan beharko da, haurrak behin baino gehiagotan eta gogotsu jolasean aritzeko.

### Irudimena eta sormena garatzen laguntzea

Irudimena giltzarria da jolasteko, eta jolasak irudimena zein sormena garatzen laguntzen badu, haurrak hainbat arlo haziko ditu bere eguneroko bizitzarako (jolasteko, besteak beste) eta etorkizunerako.

### Jakin-mina piztea, jostailuari beste aukera batzuk bilatzeko

Sormena garatzearrekin batera, jolasak jakin-mina piztu behar du, ekimenezko jarrerak bultzatzeko. Jakin mina piztea eta motibagarria izatea elkarrekin doazen faktoreak dira.

### Hausnartzeko gaitasuna bultzatzea, hala nola, gatazkak konpontzeko gaitasuna lantzea

Jolasak hainbat egoera irudikatzen ditu, maila batean bizitzeko abagunea ematen die. Egoera horiek pentsatzeko eta sentitzeko aukera ematen die, beste rol batzuetan jarriz, eta suerta daitezkeen gatazken aurrean erabakiak hartzea bidera ditzake, gatazkak konpontzeko gaitasuna landuz.

### Bizitzarako eredu anitzak bilatu

Estereotipoetan oinarritutako ereduak errepikatzen dituzten jolasak ekidin, eredu horiek gainditzeko. Horien aurrean bestelakoak harremanak irudikatzen dituztenetara bideratu behar dira, aniztasuna ezagutu aldera: familia eredu anitzak, feminitate zein maskulinitate eredu anitzak, guraso eredu ezberdinak, kultur aniztasuna...

## Recomendaciones para elegir juegos y juguetes

### Que niñas y niños puedan jugar

Descartar los juegos que se identifiquen con un género concreto. Es importante que tanto niñas como niños tengan la oportunidad de jugar cómodamente para así evitar algún tipo de exclusión. De esta forma, se fortalecerán las relaciones entre niñas y niños y de cierta manera también se podrá evitar el proceso de socialización diferenciado.

### Evitar la transmisión de estereotipos sexistas

Debemos evitar que mediante el juego se reproduzcan modelos sexistas de nuestra sociedad, puesto que niñas y niños interiorizan esos roles. Con el juego simbólico por ejemplo, hay muchas oportunidades de que se repitan esos roles.

### Fortalecer las relaciones cooperativas, que el objetivo compartido entre niñas y niños

Conviene fortalecer la cooperación entre niñas y niños para de esta forma desarrollar las capacidades sociales, de trabajo en grupo y evitar también relaciones de poder.

### Que permitan interactuar con demás niñas y niños y así fortalecer las relaciones entre iguales

Compartir el juego puede completar y facilitar el proceso de aprendizaje además de lo enriquecedor del juego en grupo.

### Favorecer la comunicación entre niñas y niños

Mediante el grupo, la comunicación entre niñas y niños se fortalece y esto ayudará en el desarrollo de las capacidades de expresión y negociación.

### Que sea divertido y motivador: que fomente las ganas de jugar

Si una de las finalidades del juego son el placer y la diversión, el juego deberá ser atractivo para que niñas y niños jueguen a menudo y motivados.

### Evitar la excesiva competitividad y/o violencia

Debemos evitar juegos que inciten a actitudes agresivas, puesto que éstas impulsan comportamientos violentos. Por ejemplo: pistolas, tanques, armas...

### Que no sea excluyente: que todas las niñas y niños puedan participar

Si queremos fortalecer el grupo, debemos evitar que el juego sea excluyente, intentando que éste sea lo más inclusivo posible. Tendremos que prestar atención a las capacidades de niñas y niños del entorno.

### Impulsar relaciones igualitarias y no de enfrentamiento ni competitividad

En el juego, las relaciones han de ser entre iguales: los roles que adquieran en el juego deben de ser paritarios y las actitudes de liderazgo evitadas. Excesiva competitividad y rivalidad podrán obstaculizar las relaciones entre niñas y niños.

### Que contribuya a desarrollar la imaginación y la creatividad

La imaginación es la llave para jugar y si el juego contribuye en el desarrollo de la imaginación y creatividad, niñas y niños desarrollarán diversos aspectos tanto de su vida diaria como de su futuro.

### Que cree curiosidad

Además de desarrollar la creatividad los juegos tienen que suscitar un interés, para promover una actitud activa. Favorecer la curiosidad y la motivación son factores complementarios.

### Que potencie la capacidad reflexiva, como por ejemplo que impulse la capacidad de solucionar conflictos

El juego les da a niñas y niños la oportunidad de imaginar diversas situaciones y en cierta manera de vivirlas. Estas situaciones les dan la opción de pensar y sentir, adquirir diferentes roles y tomar decisiones frente a diferentes conflictos, ayudando a desarrollar la capacidad de resolución de conflictos.

### Buscar ejemplos diversos para la vida

Evitar juegos que estén basados en modelos estereotipados, para así poder superarlos. Frente a estos, debemos dar a conocer diferentes modelos, para así fomentar la diversidad: modelos familiares, diversos, diversidad cultural, feminidades y masculinidades diversas...